El Gobierno de Gasteiz ha enviado cuatro mensajes poco alentadores: no es tiempo de derogar la reforma laboral, hay que bajar salarios para salvar empleo, nada de reforma fiscal y no habrá recortes (viendo los antecedentes, esta última es difícil de creer). Es cierto que hay un cambio, porque alguien ha debido pensar dentro del Gobierno que no podían seguir negándose a tener reuniones con el sindicato mayoritario de este país. Normalizar la interlocución es una condición muy básica (el Lehendakari no ha querido estar con ELA en los últimos años), pero lo realmente noticiable sería observar una voluntad de cambio en las propuestas.

### **Respeto a las mayorías democráticas**

Tampoco habrá cambios en la mal llamada mesa de diálogo social. Es una mala noticia que el Gobierno quiera seguir dando relevancia a un foro meramente propagandístico donde no se van a tratar los verdaderos problemas y que nació trampeada desde los tiempos de Patxi López. El respeto

a las mayorías y las minorías es una regla básica en democracia, algo que esta mesa no cumple: CCOO y UGT solo representan al 28% de la clase trabajadora vasca y los acuerdos son válidos si hay un sindicato que los suscriba. Este tipo de mesas son más bien un elemento para buscar el descrédito y la derrota sindical, como lo demuestra el ejemplo español: las reuniones con la CEOE, UGT y CCOO solo sirven para empeorar las propuestas del Gobierno de Sánchez, como hemos comprobado con la ley del teletrabajo.

### **Si hay buenos contenidos, ELA acuerda**

Una vez más, ELA ha reiterado su disposición a llegar a acuerdos y a acudir a mesas donde haya contenido real y se respeten las reglas democráticas. El Gobierno Vasco, hoy, no quiere reunirse en estas condiciones. Y esto queda demostrado con el convenio del Metal de Gipuzkoa: ELA negocia y acuerda, siempre y cuando los contenidos lo merezcan.

Sin embargo, los ámbitos de mayor dificultad para llegar a acuerdos son precisamente los de la Administración, diputaciones y gobiernos sobre todo. Decía Andoni

## **Akordio onak posible dira patronala edo gobernauak konturatzen direnean hobe dela adostea gu kalean eta piketeetan ikustea baino. Hor datza gure indarra, gure aukerak**

Ortuzar que “no es tiempo de pancarta y confrontación, que hace falta diálogo y concertación”. Pero lo segundo no llega sin lo primero.

Esas mismas administraciones, Gobiernos y diputaciones, no quieren abrir un debate, el fiscal. Es el gran debate pendiente, el que las grandes empresas no quieren abrir. ELA presentó hace unas semanas 24 propuestas para salir con justicia social de esta crisis, entre ellas, modificar al alza el impuestos de sociedades, patrimonio y los tramos más altos de IRPF, para recaudar 3.750 millones más en la CAV y 900 en Navarra. Ahora sufrimos un modelo de recaudación injusto y que no exige contribución a quien más tiene, lo que acaba provocando el desmantelamiento de los servicios públicos. Es cierto que el mayor

margen de deuda permitirá en el corto plazo afrontar una parte del gasto, pero hasta Azpiazu (consejero de Hacienda de la CAPV), duda de que sea suficiente. Y en todo caso, la deuda hay que pagarla y eso acarrea recortes, como vimos tras la crisis de 2008.

### **Disputa de poder**

El sindicalismo sigue teniendo el reto de provocar cambios. El reforzamiento de los servicios públicos (incluida la red de cuidados), la defensa del empleo y la urgencia de la reforma fiscal van a guiar la agenda de ELA. Movilización, alianzas y organización para las personas que se sienten olvidadas, ignoradas y maltratadas. Es la vía que nos da poder, la que abre oportunidades para conseguir cambios y buenos acuerdos.

Sí, es una disputa de poder. Los buenos acuerdos son posibles cuando la patronal o los gobiernos se dan cuenta de que es mejor pactar que vernos en la calle y en los piquetes. Ahí reside nuestra fuerza, nuestras posibilidades. Lo decían las trabajadoras de las residencias de Gipuzkoa: “Solo nos escuchan cuando luchamos”. ■



La consejera Arantza Tapia es una de las principales voces que apuesta por la bajada de salarios para hacer frente a las consecuencias de la Covid-19

Unai Martínez, secretario general de Industria eta Eraikuntza, destaca que los países con mayores salarios son quienes están a la vanguardia industrial Europea

## “Los salarios no son el problema, son la solución”

> Gorka Quevedo

Tubacex, Sidenor, ITP Zamudio, Aernnova Aeroestructuras Alava, Alestis... Son muchas las empresas donde las y los trabajadores se están movilizando en defensa de sus condiciones laborales. Hablamos, sobre todo, de empresas del metal ligadas a la aeronáutica y la automoción y que tienen varios puntos en común. Estamos ante sectores, empresas y proyectos industriales viables que, mediante la coyuntura creada por el Covid-19, pretenden implantar una precariedad laboral que no está justificada. **Unai Martínez**, secretario general de la federación Industria eta Eraikuntza, destaca que no estamos ante un fenómeno nuevo. “Cada vez que hay una coyuntura adversa algunas empresas pretenden aprovecharla para empeorar las condiciones laborales. Sin embargo, cuando los beneficios son cuantiosos,

los y las trabajadoras no lo notan en sus condiciones y, en cambio, los repartos de beneficios son cuantiosos. Tenemos memoria, y si estos años hemos aprendido una cosa es que bajando salarios no se mantiene el empleo”.

“Azken krisietako esperientziak argi erakusten digu soldatak jaitzita ez dela enplegua mantentzen”

Martínez considera que muchas empresas y multinacionales pretenden convertir un problema coyuntural en algo estructural. “Tenemos proyectos industriales que llevan años con grandes beneficios, y ahora parece que esos millones han desaparecido de la noche a la

mañana. Nos dicen que la solución pasa por despedir, bajar los salarios o aprobar ERTes, cuando en muchos casos la masa salarial de la plantilla es una pequeña parte del presupuesto global. Algunos planes de viabilidad se sustentan únicamente en bajar el coste salarial, sin acometer ninguna otra medida. A veces es sorprendente la pobreza argumental de algunos planteamientos empresariales”.

Estamos ante una estrategia patronal que cuenta con apoyo institucional. Así lo cree Martínez. “Los gobiernos tienen una actitud pro-patronal, algo que es especialmente evidente en el caso del Gobierno de Gasteiz. La consejera Arantza Tapia respalda totalmente la estrategia de bajada de salarios. Tiene una mentalidad tremendamente neoliberal, donde los empresarios crean la riqueza y no tienen responsabilidad alguna. Si en una empresa se producen





Unai Martínez

despidos nos quiere hacer creer que es por la intransigencia de las y los trabajadores”.

El secretario general de Industria eta Eraikuntza cree que la pandemia del Covid-19 nos ha dejado varias lecciones a tener en cuenta. “Aquí quienes siempre han estado dando el callo han sido las y los trabajadores. Si la industria en Euskal Herria es competitiva es principalmente por su trabajo, son quienes crean la riqueza. Esta idea es muy importante destacarla, porque nos quieren hacer creer que estamos en un mundo donde la riqueza la generan el capital y los emprendedores. Algunas empresas que están chantajeando a su plantilla para que se bajen los salarios pese a que lleven años con grandes beneficios se pusieron en marcha gracias tanto al , como al impuesto público”.

“Hay una realidad que nadie puede discutir”, recalca Unai Martínez. “En Europa los países con menor jornada laboral, salarios más altos y mayor presión fiscal son quienes más fuertes saldrán de esta coyuntura. Hay que repartir la riqueza y aumentar la recaudación para que mediante una política industrial efectiva apostemos por sectores de futuro, que respondan a los retos medioambientales a los que el planeta se enfrenta. Colocar la salida de la crisis en la bajada salarial es de una mediocridad preocupante. Según estas teorías, Rumania, Bulgaria y otros países europeos de bajo coste deberían ser la vanguardia industrial Europea. La realidad demuestra lo contrario. Los salarios, en lugar de ser el problema, son la solución”. ■

## Soldatak jaistea al da irtenbidea?

**Unai Martínez**

Industria eta Eraikuntzako idazkari nagusia

**A**zkenaldian, bizi dugun egoera ekonomikoaren aurrean, hainbat arduradun politiko eta sozialek langileen soldatak jaisteko beharra azpimarratu dute. Hilabeteetako ziurgabetasunaren ondoren, ez da kasualitatea hainbat enpresa eta arduradunek modu koordinatuan berriro ere *‘lan gehiago egin behar da eta gutxiago kobratu’* edo *‘gure aukeren gainetik bizi izan gara’* bezalakoak plazaratzea. Helburua, 2008an espekulazio kapitalistak sortutako krisiaren ondorioz gertatu zen bezala, herritarren pobretze masiborako bidea prestatzea da, kapitalaren etekinei eustearen kontura.

Hauteskunde-kanpainan Urkulluk behin eta berriz murrizketarik ez zela egingo esan zuen. Kanpaina amaitu eta egun batzuetara, hainbat enpresak lan-baldintzak aldatzeko borondatea agertu dute, kaleratzeekin mehatxatuz. Guztiak EAEn zentro garrantzitsuak dituztenak: Aernnova, ITP eta Tubacex. Modu koordinatuan eta hauteskundearen ondoren, kasualitatea? Arantza Tapiak sailburuak oinarri ideologikoa eman die planteamendu horiei: *‘Soldatak jaisten saiatu behar da kaleratzera jo aurretik’*. Ezer berririk ez du formulatzen. Zein da Tapiaren helburu nagusia? Enpresetako zuzendaritzak edozein erantzukizunetatik libratzea, langileak beren enpleguetatik eta lan baldintzetatik babesteko egingo dugun borrokaren aurrean. Tapiaren arabera, irtenbidea sindikatuen esku dago, soldatak arazoa direla onartzen ez badute, kaleratzeak eragingo dituzte eta enpresak ixtea beraien ardura izango da.

Jakina da koronabirusak sortutako abaguneak merkatu falta, lan-karga eta ziurgabetasuna eragiten dituela. Inbertsio egokiak egin ez dituzten eta lehiakorak ez diren enpresek soldatak ez diren arazo bat dute. Ez dugu ahaztu behar ERTEekin enpresek zuzenean uzten diotela langileei soldata ordaintzeari. Langileen kontrako neurriak hartuko dituztela iragarri duten enpresa gehienak ERTEen daude. Adibidez, Aernnova. Azken urteotan milioika euro banatu ditu akziodunen artean. Dibidendua ordaintzeko enpresa zorpetzea ere proposatu du, duela urte batzuk Tubos Reunidosok egin zuen bezala, bere zorra enpresak berak sortu baitzuen milioiak banatzeko. Honen aurrean, Tapiari ez zaio analisi zorrotz eta kritikorik entzungo. *‘Aireportu batera hurbiltzen bazara, egoera ikusi ahal izango duzu’* erantzuten du, sektore aeronautikoaz galdetuta. Sailburu, *egoerak* konplexuagoak dira, eta objektibotasunez aztertzeko, ezinbestekoa da abiatzea enpresen erantzukizun soziala ere badagoela, eta, kasu askotan, etekinak lortzeko soilik jarduten dutela, eta erakundeetako arduradunek gizartearen ona zaindu behar dutela, eta ez zati txiki batena bakarrik.

Soldatak jaistekak diru-bilketaren arazoak areagotuko ditu; zenbat eta soldata txikiagoa, orduan eta diru-bilketa txikiagoa. Gainera, kapitalarentzat, Covid-19 pairatzearen errua ez dute izango kanpoan diru gehiago irabazteko deslokalizazioek (Gamesa-Siemens), inbertitu gabeko eta dibidendu gisa banatutako milioiek (Aernnova), ezta merkatuko egoera koiunturalek ere (Tubacex, ITP). Analisi sinplisten aurka borrokatu eta kapitalaren aurrean jartzen direnen errua izango da. Fiskalitate justuagorik gabe, zorrak gora egingo du eta murrizketa sozialek aurrera jarraituko dute.

Ibilbide-orri horri egin behar zaio aurre. European soldata altuenak, lanaldi laburragoa eta presio fiskal handiena duten herrialdeak izango dira, berriz ere, krisiari hobekien aurre egingo diotenak. Soldatak jaistea arazoaren zati bat da, ez konponbidea. Aberastasuna sortuko duen industria baten alde borrokatuko gara, zerbitzu publikoak indartzeko. Zaintzen gaituztenak zaintzeko. ■

La Covid-19 ha agravado los graves problemas del sistema sanitario público, pero ni han nacido con el virus ni se irán con su desaparición o control

#### > Gorka Quevedo

Asko dira Covid-19ak sortutako pandemiak utzi dizkigun irakasgaiak. Horietako bat, agian nagusiena, zerbitzu publikoen garrantzia izan da. Pandemiaren unerik gogorrenetan ere bertako langileak lehen lerroan egon dira, egoera izugarri gogorrei aurre eginez, kasu askotan behar adina baliabiderik gabe. Hilabete guzti hauetan agerian geratu da kalitatezko zerbitzu publikorik gabe balduta geundekeela. Langileak horren jakitun dira, eta sektore ezberdinetan mobilizazioei ekin diete, euren lan-baldintzak eta zerbitzu publikoak indartzeko neurriak eskatzeko.

#### **Greba egun arrakastatsua EAEko Hezkuntzan**

Irailaren 15a greba eguna izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzan. Greba arrakastatsua, zalantzarik gabe. Eusko Jaurlaritza gogotik saiatu zen deialdia oztopatzen, besteak beste inoiz baino zerbitzu minimo handiagoak jarritz. Hala ere, porrot egin zuen. Greba egin zezaketenen artean %70ak bat egin zuen deialdiarekin, eta deitutako mobilizazio ezberdinetan milaka lagun bildu ziren.

Administrazioak ikasturte presentzial, seguru eta adostu baten alde egindako grebari erantzunik eman ez dionez, hezkuntzan ordezkaritza duten sindikatuek mobilizazioei eustea erabaki dute. Hezkuntza Saila aldebakarreko erabakiak hartzen jarraitzen du, langileen ordezkariekin adostu gabe. Beste behin ere, Eusko Jaurlaritzak elkarrizketarako pausoak sindikatuek mobilizazioak deitu dituztenean bakarrik eman ditu.



Covid-19ak nabarmendu egin ditu zerbitzu publikoetan zeuden gabeziak; sektore ezberdinetako langileek mobilizazioei ekin diete lan-baldintzak hobetzeko eta baliabide gehiago lortzeko

# Langile publikoak, lehertuta eta baliabiderik gabe

Horregatik, mobilizazioek jarraituko dute.

#### **Urriak 6, greba Gipuzkoako Erresidentzietan**

Martxoaren 13an Gipuzkoako Erresidentzietako grebalariek 243 egunetako greba bertan behera utzi zuten, Covid-19ak eragindako pandemiaren baitan hartutako

erabakia. Hilabeteak pasa dira, eta bertako langileak pandemiaren aurretik baina baldintza okerragoetan ari dira lanean. Covid-19ak izugarritzko triskantza egin zuen erresidentzietan. Hildakoak 170 baino gehiago izan ziren, eta ehunka langile kutsatu ziren. Zer esanik ez, pandemiak lehertuta utzi ditu langile hauek, fisikoki, psikologikoki eta emozionalki.





## Las y los trabajadores de los diferentes sectores públicos siguen en lucha por sus condiciones laborales y para exigir más recursos

arazo horiek konpontzetik urruti gaude. Bitarteko gehiago behar dira eta osasun publikoa indartu behar da, sektoreko langileek bizi duten muturreko egoerarekin amaitzeko. Horregatik, iraila eta urrian zehar hamaika mobilizazio egin dituzte osasun zentro ezberdinetan.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu berriak, Gotzone Sagarduik, publikoki hainbat aldiz adierazi du sindikatuetakako ordezkariekin biltzeko asmoa duela. Hala ere, errealitatea oso bestelakoa da, gaur egun ez dagoelako bilera horretarako datarik. Osasun sistema publikoak dituen arazo larriak larriagotu egin dira, baina ez dira birusarekin jaio, eta ez dira desagertuko edo kontrolatuko egiturazko edo sakoneko neurriak hartu ezean. ■

Uneotan egoera oso larria da. Duela bi urte gatazka lehertzea eragin zuten arrazoiei erantsi behar zaio zentroak berregituratzeak eragin duen lan-karga handia. Horregatik, egoera honen aurrean langileek greba deitu dute urriaren 6rako; 244ena. Enpresen zein Foru Aldundiaren mespretxua eta kudeaketa negargarria nabarmenak dira, eta langileek berriz ere mobilizazioei ekitea erabaki dute, inoiz baino gehiago hitzarmenaren ordua dela sinetsita.

### Hiru greba egun Arabako Erresidentzietan, hitzarmenaren defentsan

Egoera ere larria da oso Arabako Erresidentzietan. Bertan ez dago herrialdeko hitzarmenik, eta Estatuko hitzarmena aplikatzen da –hau da, 1.000 eurotara heltzen ez diren soldatak urtean 1.700 ordu lan egitearen truke–. Sektorean ordezkariak duten sindikatuek hainbat mobilizazio egin dituzte, baina euren eskaerak aintzat ez zirela kontutan hartuta hiru greba egun deitu dituzte: urriak 7 eta azaroak 11 eta 25.

### Mobilizazioak Osakidetzan

Osakidetzako langileak lehertuta eta baliabide gabe daude. Horregatik mobilizazioei ekitea erabaki dute. Covid-19ak agerian utzi ditu osasun sistemaren arazo larriak, eta gaur





Las trabajadoras de sectores que la pandemia nos ha mostrado como esenciales –comedores, transporte escolar o alimentación–, dispuestas a luchar por sus empleos y sus condiciones laborales

# Imprescindibles aunque invisibles y precarias

> Nerea Ispizua

## Comedores escolares y Transporte escolar

Las trabajadoras de los comedores escolares (colectividades) y del transporte escolar están siendo unas de las grandes olvidadas del atípico final de curso pasado y de los inicios de éste. Y es que aunque comparten con las trabajadoras y trabajadores directos de los centros escolares –docentes y no docentes– una situación de inseguridad común ya que el Departamento de Educación no ha establecido ni criterios ni protocolos ni garantía de seguridad ante el inicio del curso escolar, en su caso se suma la falta de garantías del servicio para todo el alumnado.

**Noemi Etxebarria**, responsable de ELA, no duda en calificar la situación del sector de dramática. “Se inicia el nuevo curso, y el Gobierno Vasco no garantiza ni la salud de las trabajadoras ni tampoco el mantenimiento del empleo ni las condiciones laborales. La Administración no se reúne con los sindicatos, y la poca información que disponemos es a través de los medios de comunicación. Es una vergüenza la falta de transparencia y la falta de medidas del departamento con un colectivo tan precarizado”.

Etxebarria continúa su relato explicando que las empresas, por su parte, están llamando a trabajar a las trabajadoras fijas y fijas discontinuas, dejando fuera a las eventuales.

“La destrucción de empleo es muy importante sólo con el hecho de no contratar a las eventuales”. Por si esto no fuera suficientemente grave, no están garantizando las condiciones de las trabajadoras fijas y fijas discontinuas, en muchos casos disminuyendo sus jornadas. “El planteamiento que nos hacen las empresas es el de repartir de manera equitativa las horas vinculadas a ratios –menores que en cursos anteriores– entre todas las trabajadoras fijas-discontinuas, priorizando el mantenimiento del mayor número de contratos pero no las condiciones laborales, lo que supone una precarización aún mayor de las ya muy bajas condiciones laborales de las trabajadoras del sector”.



## ¿Y qué ocurriría con este colectivo si hay un rebrote?

Noemi Etxebarria muestra su preocupación ante la situación de indefensión en la que se encuentran estos colectivos ante posibles rebotes. Si se diera una paralización de la actividad de los servicios, más allá de las garantías que se recojan por parte del estado en los decretos que prorrogan los ERTE, ELA entiende que el Gobierno Vasco debería garantizar, en la capacidad que como administración tiene, el 100% de las percepciones y de las condiciones laborales de estas trabajadoras. Estamos hablando de un colectivo en torno a las 8.000 mujeres que se ocupan de los comedores y acompañamiento en el transporte escolar, un sector feminizado y precarizado, que son las eternas olvidadas.

## Comercio-Alimentación, Supermercados DIA

**Edurne Lavadero** es delegada de ELA en DIA. Trabaja de cajera reponedora y lleva 12 años en esta cadena de supermercados. La pandemia les pilló en plena transición, recién salidos de un ERE y con todas las incógnitas acerca del futuro tras los cambios sufridos por la empresa.

Edurne Lavadero explica que la situación en las tiendas DIA de Gipuzkoa fue un auténtico caos. A todo el mundo le pilló de sorpresa, y a la dirección, más. "Les costó muchísimo reaccionar. Mientras compañeras de otros supermercados contaban ya con EPIs, guantes, material de protección, geles... a nosotras no nos llegaban... Tuvimos la sensación de que éramos las últimas de la cola, porque fue así. La suerte que tuvimos es que en la zona en la que se encontraba mi supermercado, Legazpi, hubo poca incidencia del coronavirus porque si no... éramos carne de cañón". Así las cosas, las delegadas de ELA han tenido que ser muy beligerantes con la empresa para obligarles a dotar a la plantilla de medidas de protección adecuadas.

"Tuvimos que llegar a amenazar con no trabajar y cerrar tiendas para defender nuestra salud y la de nuestras familias".

Otra decisión que no tomó el supermercado, al contrario que otros, fue contratar personal de seguridad, lo que provocó que las propias trabajadoras tuvieran que controlar aforos y poner límites a muchas personas cuando pretendían entrar sin mascarilla (en aquellos meses no era obligatoria en todos los ámbitos), no usaban guantes o no respetaban las distancias de seguridad. "La inseguridad y el miedo provocaron entre la clientela situaciones de histerismo, con las que hemos tenido que lidiar en el día a día. Sinceramente, muchos clientes no eran conscientes del peligro al que estábamos sometidas y había que confrontar para que cumplieran las reglas básicas de acceso al supermercado".

**"Lanik ez genuela egingo mehatxatu behar izan genuen, eta dendak itxi behar izan genituen gure eta gure familien osasuna defendatzeko"**

## ¿Cuándo se convirtieron en trabajadoras esenciales?

Edurne cree que la condición de trabajadoras esenciales que se han ganado durante la pandemia no es algo que esté realmente extendido en la sociedad. "Los medios de comunicación empezaron a reconocer que hacíamos un trabajo esencial, y es así, pero creo que el reconocimiento social real no ha llegado". Tampoco el reconocimiento empresarial a su trabajo. "Durante la pandemia las ventas aumentaron muchísimo, y ante la pelea sindical la empresa nos dio un plus único y puntual de 250 euros, pero nada más. Seguimos teniendo el mismo convenio estatal, con los precarios salarios y condiciones laborales anteriores a la pandemia".



Poco a poco, la normalidad ha vuelto a los supermercados. Las trabajadoras disponen de EPIs, desinfectante, la gente entra con mascarilla, se respetan más o menos las distancias... pero ellas no son las mismas.

"El ERE que sufrimos antes de la pandemia, y luego la pandemia, nos ha empoderado. Históricamente hemos sido un sector que no se atrevía a movilizarse, pero la defensa de nuestros puestos de trabajo, primero, y de la salud, después, nos ha hecho crecer y atrevernos a confrontar con la dirección". Y es que estas trabajadoras, que estuvieron en primera línea cuando se las necesitó, han vuelto a la invisibilidad, han dejado de ser esenciales para convertirse en unas currelas más, a las que no se les valora lo suficiente.

"Nosotras somos trabajadoras, punto. Pero como cualquier otra persona trabajadora merecemos unas condiciones laborales dignas, y ésa va a ser nuestra pelea ahora. Justo antes de la pandemia se firmó el convenio en Madrid. Un convenio estatal con condiciones muy bajas, que ahora desde aquí vamos a intentar mejorar llegando a pactos con la dirección, y con el objetivo a medio plazo de conseguir negociar un convenio propio en nuestro ámbito. Creemos que la empresa tiene margen para negociar mejoras sociolaborales, y en eso estamos". ■

# Koronabirusa eta klima aldaketa: guztiz lotuta dauden bi lehentasun

Trafikoaren eta industria kutsatzailearen jardura murrizteak berehalako ondorioak izan ditu ingurumenean

## > Ainhara Plazaola

Aurreikuspenek adierazten dute 2020 honetan berotegi efektuko isurketak murriztu egingo direla 2019rekin alderatuta. Koronabirusa geldiarazteko hasierako neurriek (kale hutsak, fabrika asko itxita, autorik gabeko errepideak...) airearen kalitatea hobetu duten arren ezin zaio balio handirik eman, Txinan (isurketen %25eko murrizketa) eta beste herrialde batzuetan pandemiaren ondorioz izandako isurketen murrizketak aldi baterako gertaerak baitira. Gainera gobernuek krisitik ateratzeko hartzen dituzten neurriak sarritan gehiegizko kontsumoan eta natur baliabideen gehiegizko ustiapenean oinarrituak izaten dira.

Birus honek gure ohiturak ere aldatu ditu, eta batzuk epe luzean klima aldaketaren aurka egiten lagun dezake: etxetik lan egitea, bideokonferentzia bidezko bilerak, egun gutxiago lan egitea, tokiko kontsumoa, ... Teelana handitu egin da, baina aldaketa kultural, antolakuntzako eta teknologikoa behar ditu. Aldaketa horri esker, joan etorrien kostu ekonomikoa eta ingurumenekoa murrizteko aukera dago, kontziliazioa errazteaz gain.

Enpresek ondorioztatu beharko lukete planetarentzat ona dena badela beraien hornikuntza kateak era guztietako arriskuen aurrean babesteko modua ere, izan klima aldaketarekin zerikusia dutenak, edo izan pandemia globalak.

Egoera hau frogatzen ari da trafikoaren eta industria kutsatzailearen jardura murriztea bezalako neurriek berehalako ondorioak dituztela, bai ingurumenean, bai kutsadurak eragindako gaixotasunak jada pairatzen dituzten pertsonen osasunean. Ez da ahaztu behar espainiar estatuan urtean 16.000 heriotza izaten direla atmosferako kutsadurak eraginda.

Une honetan koronabirusaren inguruan mundu mailako kezka dagoen arren, klima aldaketaren aurkako borrokan ahaleginak ez dira murriztu behar. Koronabirusa aldi baterako izatea espero da, aldi baterako eraginak dituena, baina klima aldaketa urte askoan egongo da hemen eta etengabeko ekintza eskatzen du. Klima aldaketak ere ondorioak ditu pertsonen osasunean eta gure gizarteetan, koronabirusa baino askoz larriagoak sarritan. Epe laburrean eragin ekonomikoa izango du birusak, baina berotze globalak eragindako galerak masiboak izango dira.

**Estamos ante una oportunidad de cambios radicales, poniendo la vida en el centro y protegiendo el planeta**

Eta ezin dugu ahaztu egoera honetan zerbitzu publikoak jokatzeko ari diren papera, murrizketa handiak eta privatizazioak jasan ondoren, osasun krisi honetatik ateratzeko funtsezko lana egiten ari dira. Pandemia osteko egoera une erabakigarria izango da koronabirusari aurre egiteko baldintzarik onenak ez izatera eraman gaituen sistema hau aldatzeko neurriak hartzeko.

Aldaketa erradikalak egiteko aukera da hau, bizitza erdigunean jarriz eta planeta babestuz. Daukagun ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak hausnartzeko eta birpentsatzeko unea, baita lan egiteko modua ere. ■



Aberastasun handien eta ondare-  
aberastasunaren gaineko zerga handituz  
posible da irtenbide feminista lortzea

# Krisiaren irtenbide feminista helburu

ELA plantea una salida  
feminista a la crisis  
mediante una reforma  
fiscal progresiva que  
satisfaga las necesidades  
materiales, priorice los  
cuidados y fortalezca el  
sector público

## > Landeia

Eguno egoerari irtenbide bat bilatzeko proposamenak entzuten dira han eta hemen. Sindikatuak maiztzean *Benetako irteera bat*. ELAren proposamen politikoa aurkeztu zuen. Bertan egungo abaguneari irteera justu bat lortzeko 24 neurri zehatz proposatzen ziren. Dokumentu horrek neurri feministak ere jasotzen zituen, baina, denbora aurrera joan ahala mugimendu eta praxis sindikal feministak erakutsitako esperientziatik neurri feministetan sakontzea izan da helburua.

Abagune honetan ELAK berebiziko garrantzia eman nahi dio krisitik ateratzeko irtenbide feministak plazaratzeari, batetik erabakiak baldintzatzeko eta, bestetik, indar kolektiboak eraikitzeko. Krisitik ateratzeko irakurketa eta proposamen feministetan jarraitu nahi izan da, esparru ekonomiko nagusietan nagusitzen den ikuspegi produktibista, merkantilizatua eta espekulatiboa alde batera utzita.

Irtenbide feminista batean sakondu nahi bada ezinbestekoa da oraingo politikak alboratzea. Horregatik, hainbat dira sindikatu bezala ELAren dokumentuan jasotzen diren proposamenak, hiru atal nagusitan banatuak: bizitzeko behar materialak betetzea, diru-sarrerak nahikoak eta etxebizitza eskubidea bermatuz; bizitza zein zaintza erdigunean kokatzea; eta arlo publikoa sendotzea.

Ez da lan erraza izango helburu horiek lortzea. Izan ere, krisi honetatik



ateratzeko gaur egun planteatzen ari diren neurriek 2008an jarraitu zen ibilbide neoliberalaren eredu berari erantzuten diotela ziurtatzen dute: austeritate-politikak, zerbitzu publikoen murrizketak fiskalitatea aldatzen ez den bitartean... Hain zuzen, milaka eta milaka lagunentzat ondorio lazarriak izan dituzten politikak: pobrezia eta prekarietatea gero eta feminizatuagoak izango dira, genero-rolak indartuko dira eta indarkeria matxista, LGTBIfobikoak eta arrazista ere indartuko dira, denboraren, lanaren eta aberastasunaren banaketa bidegabeagoa egingo da...

## Nola lortu irtenbide feminista?

Orain arteko betiko errezetek ez dute balio. Hala dio eskarmentuak. ELAK proposatzen dituen irtenbide guzti horiek lortzeko diru-sarrerak publikoak handitu behar dira, eta horrek

erreforma fiskala egitea eskatzen due ezinbestean. Aberastasuna modu bidezkoagoan banatzea bilatzen duen zerga-sistema batek eragin positibo zuzena izango luke emakumeen bizitzetan. Izan ere, sektore publikoari diru-sarrerak ematea eta aurrekontu sozial, feminista, ekologiko, parte-hartzaile eta, azken batean, bidezkoago bihurtzea lagungarria izango da aberastasunaren banaketa bidezkoagoa egiteko klase- eta genero-ikuspegitik begiratuta ere.

Eta, hori nola gauzatu? Aberastasun handien eta ondare-aberastasunaren gaineko zerga pixkanaka handituz, %1 eta % 10 arteko errekarju espezifiko baten bidez, edo Sozietateen gaineko Zergaren aitopenean %20ko errekarju berezi baten bidez, besteak beste. Borondate politiko kontua da, besterik ez. ■



## ELAk bat egiten du Euskaraldiaren bigarren edizioarekin

Azaroaren 20an Euskaraldiaren bigarren edizioa egingo da, euskaraz dakiten eta ulertzen duten lagunen hizkuntza ohiturak aldatzeko 2018an martxan jarritako ekimena. Bigarren edizio honetan ariketa kolektiboak 15 egun iraungo ditu: azaroaren 20tik abenduaren 4ra burutuko da, eta berrikuntza batekin dator: norbanako bezala parte hartzeko aukeraz gain –aurreko aldian bezala *Ahobizi* (\*1) edo *Belarriprest* (\*2) gisan–, entitate moduan parte hartzeko aukera ere izango da **arigune** izendatutako taldeen bidez.

Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatu beharko duten guneak dira. Talde hauetan parte hartuko duten langileek ahobizi eta belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko da ariguneetan. Hala, bi motako ariguneak bereiztuko dira:

- **Barne-ariguneak:** Kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira. Ariguneetako kideek euren hizkuntza-ohiturak aldatzeko aurrera pausoak emango dituzte, eta taldeko kide bakoitzak erabakiko du ahobizi edo belarriprest moduan parte hartu.
- **Kanpo-ariguneak:** Sindikatuan herritarrekin harreman-espazioetan dauden pertsonak osatzen dute kanpo arigunea, uneoro belarriprest edo ahobizi bat egongo dela bermatzen bada; hau da, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea badute.

ELAk ere parte hartuko du Euskaraldiaren bigarren aldi honetan, eta dei egiten die sindikatuko militante guztiei ekimen honetan izena emateko.

(\*1) **Ahobizi**-ek Euskaraldia dirauen bitartean, euskara ulertzen duten pertsona guztiekin euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute.

(\*2) **Belarriprest**-ek euskara behintzat ulertzen duten parte hartzaileak dira, eta eurekin euskaraz aritu nahi duen orori horretarako bide emango diete.



## Fallece Javier Naveda, responsable de ELA en la Administración Autónoma

El 31 de agosto falleció Javier Naveda, liberado de ELA en la Administración Autónoma. Naveda se liberó en 1986, y desde el principio tuvo un papel muy activo en la sección sindical de la Autónoma. Un trabajo militante constante que las y los trabajadores refrendaron en los magníficos resultados obtenidos en las diversas elecciones sindicales. Naveda asumió diversas responsabilidades dentro del sindicato durante su actividad sindical: las movilizaciones de Justicia en 1997, la gestión de las transferencias, liderar el trabajo organizativo en Lakua, las interminables luchas en Lanbide desde sus orígenes....

En 2017 dejó la liberación en la Administración Autónoma para desempeñar otras responsabilidades en Gizalan, federación de servicios públicos. Este 2019 fue en las listas electorales de Lanbide, y la plantilla volvió a elegirle delegado sindical. Esa fue la última aportación de Javi Naveda al sindicato tras una vida entregada a defender a la clase trabajadora. Goian bego.

Besteak beste, %9,6ko igoera, azpikontraten subrogazioa eta lan erreformaren aurkako blindajea jasotzen ditu akordiorako proposamenak

# “Gipuzkoako metalean akordio historikoa lortzeko aukera dago”



Urriaren 2an ELAk Gipuzkoako metalean dituen ordezkariak agerraldi publikoa egin zuten. Bertan azaldu zuten, ELA prest dago sektoreko langileen lan baldintzak arautuko dituen herrialdeko hitzarmena sinatzeko. Izan ere, **Uri Idigoras**en ustez, akordio proposamena bikaina da.

“Proposamena oso ona da. Hobekuntza nabarmenak jasotzen ditu: %9,6ko soldata-igoerak, kolektibo garrantzitsuentzako subrogazioa eta lan-erreformen aurrean blindajeak jasotzen ditu, besteak beste”.

ELAk ordezkariaren %48,76a du. Horregatik gutxienez beste sindikatu baten babesa beharrezkoa da gehiengo osoa izateko. “Hitzarmena ez adostea albiste txarra da milaka metalurgikorentzat. Horregatik atsekabez hartu genuen urriaren 3ko bileran gainontzeko sindikatuek proposamenari oniritzia eman ez izana. Adegik bileran azaldu zuten gehiengorik ez zegoenez eskaintza erretiratzen zuela. ELAtik erabaki horren aurka gaude”.

Akordiorako proposamenean jasotzen zenaren garrantzia azpimarratzen du Idigorasek. “Egungo egoeran, langileek hamarkada bateko aurrerapena ekarriko duen hitzarmen bat behar dute, bai eskubideei dagokienez, bai soldatei dagokienez. Ezin dugu aukera hau pasatzen utzi”.

## Las 10 mejoras más importantes recogidas en la propuesta de acuerdo del Metal de Gipuzkoa:

1. **Incrementos salariales** del 8,8% hasta 2019 en las tablas salariales (también en dietas, viajes, etcétera) y del 0,8% en 2020 (en total, un 9,6%). Para 2021 y 2022, se garantiza el IPC para todas las empresas del sector (no devolución si el IPC es negativo).
2. Cláusula de **inaplicación** (blindaje anti-reforma laboral).
3. **Ultractividad indefinida** (hasta ahora, el convenio no contenía ultractividad alguna).
4. **Subrogación** para las **personas subcontratadas** en mantenimiento, almacén y logística, limpieza industrial y instalaciones telefónicas. Da estabilidad laboral a miles de trabajadores/as fuera de la empresa principal.
5. **Contratación por ETT, máximo un año** (ese periodo y el realizado con contratos eventuales se reconoce como antigüedad).
6. **Igualdad**. Las empresas deberán aportar más información que la obligatoria por ley y con plazos obligatorios.
7. **Licencias**. Se elimina la necesidad de convivencia para disfrutarla.
8. **Flexibilidad**. El preaviso pasa de 3 a 5 días.
9. **Se modifica el art.49**, las Modificaciones colectivas de salario solo se podrán aplicar mediante acuerdo.
10. **Prioridad aplicativa** del convenio de Gipuzkoa frente al estatal.

## Siemens Gamesa: deslokalizazioaren aurka, antolaketa eta borroka

> Puy Ramírez

Ekainak 30. Nafarroako Gobernuak bilera baterako deia egin die Siemens Gamesak Agoitzen zuen lantokiaren langileen ordezkariei. Manu Ayerdi kontseilariarekin bilduta zeudela piztu zen albistea: Siemens Gamesak lantegia itxiko zuela iragarri zuen. Alde batetik, sinesgaiztasuna. Bi aste lehenago gerenteak bilera formal batean bermatu zien 2021eko irailera arte lan-karga zegoela. Bestalde, haserre nabarmena; izan ere, multinazionalak Agoitzen duen lantegiak 10 urte ditu, erreforma txiki batekin beste pala batzuk egiteko egokitu zitekeen eta 13 milioi euro baino gehiagoko diru publikoa inbertitu dute bertan. Iragarpena kolpe gogorra izan zen langileentzat eta Agoitzeko herri osoarentzat, langabeziak eta despulazioak zigortutako lurraldea.

Enpresak unerik txarrena aukeratu zuen gainera: uda hasierarekin bat eta mundu mailako pandemia baten erdian eman zuten erabakia. Langileek, ordea, argi izan zuten hasieratik: deslokalizazioaren aurrean, antolaketa eta borroka lanpostuak defendatzeko.

Egun horretatik aurrera ez ziren gelditu. Auto karabana bat antolatu zuten, lantegitik abiatu eta Iruñerria osoa zeharkatu zuena, enpleguaren aldeko aldarrikapenari bozgorailua jarritz. Manifestazioak deitu zituzten Iruñean eta Agoitzen, eta milaka lagun bertaratu ziren. Lantegia Nafarroako Parlamentuaren egoitzatik bereizten dituen ia 28 kilometroak oinez egin zituzten, klase politikoari deslokalizazio horren aurka inplikazioa eskatzeko. Batzarrak egin zituzten, lantegiaren barruan eta kanpoan, elkarretaratzek, bilerak... Guztia lantegia irekita mantentzeko eta ia 250 familiari etorkizuna bermatzeko. Nafarroako gizarteak orokorrean eta Agoitz inguruko bizilagunek, bereziki, langileekin bat egin zuten eta egun gutxi batzuetan 18.000 pertsonak baino gehiagok eman zuten itxieraren aurkako sinadura.

Protestaren intentsitatea puntu bat gehiago igo zen uztailaren 30ean. Egun horretan, langileen ordezkaritza batek, batzordearekin batera, San Lorentzo eliza mitikoan sartzea erabaki zuen. Beste lan-gatazka batzuen lekuko izan den basilika izan zen, oraingoan, protestaren egoitza. 24 orduko itxialdia eta baraualdia, helburua lortzeko: enplegua mantentzea.

Zailtasun guztiekin eta pandemia baten erdian, ez dute atzerapausorik eman lanpostuen defentsan. Ordu asko izan dira. Barre eta negar egin dute maskaren atzean, baina batez ere koherenteak izan dira euren helburuan. Eraitza ez da izan gustatuko litzaiekeena, baina lasaitasunez esan dezakete egin behar zutena egin zutela.

Irudian Siemens Gamesako langileak Iruñako San Lorentzo elizan egindako itxialdian



### ELA denuncia la persecución política del Estado español contra el president Torra

ELA denuncia la persecución política contra Quim Torra y expresa toda su solidaridad con el presidente catalán, inhabilitado por el Tribunal Supremo, lo que supone un ataque inaceptable contra la libertad de expresión.

ELA siempre ha destacado la determinación política de los dirigentes catalanes, así como la movilización social en favor del derecho a decidir, al tiempo que denuncia la política represiva del Gobierno español y exige la libertad de los líderes de un proceso democrático que se está llevando a cabo desde Catalunya para poder elegir libre y democráticamente su futuro.

### ELAk bat egin zuten irailaren 19an Iparraldean euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazioekin

Bakegileek bultzatuta, irailaren 19an mobilizazio ugari egin ziren Ipar Euskal Herrian euskal presoen eskubideen alde. ELAk bat egin zuten Bakegileen ekimen berri honekin; izan ere, mobilizazioan euskal gatazka politikoa konpontzeko prozesuaren fase berri hau blokeatuta dagoela salatu nahi izan zen, Frantziako fiskaltza egungo espetxe politika aldatzeko oztopoak jartzen ari delako.

Baianan egin zen mobilizazio nagusiaren amaieran Bakegileek azpimarratu zuten, presoak Euskal Herriratzeko garaia da. "Gatazka ebazpen guztietan egon dira formulak presoak denbora luzez kartzelan egon ez daitezten, behin bakea lortuta".



-¿Y tú por qué haces huelga?  
-¿Yo? Para que tú cobres lo mismo que yo.

### Héctor Peñalver

Responsable de Industria eta Eraikuntza en Navarra

**E**l 16 de febrero de 2019 comenzó una huelga en **Icer Rail** de Iruña. Durante 18 meses se realizaron 183 días de huelga. Este septiembre, los y las huelguistas han decidido parar sin haber conseguido todos los objetivos que nos propusimos en un inicio. Pero no nos venimos abajo, estamos mejor que hace 18 meses. Cobramos más y tenemos más derechos. Nosotros y quienes no hacen huelga, pero eso es solidaridad cuando las direcciones empresariales imponen la precariedad a base de explotación, cuando imponen su beneficio sobre nuestra salud, cuando aprietan con excesivas cargas de trabajo, cuando sancionan por exigir mejoras, cuando despiden aleatoriamente para que la gente no proteste, para escarmentar...

Pero siempre hay gente valiente, que no agacha la cabeza ante las injusticias, que se revela ante la precariedad. Los y las huelguistas de Icer han sido, son y serán ejemplo de solidaridad de clase frente al individualismo al que nos aboca el sistema.

**No ha sido un camino fácil.** Desde antes de las elecciones sindicales la dirección tomó partido y ha apoyó a UGT. Ha tratado de fortalecer su sección sindical y ha contratado a través de la *bolsa de empleo* de ese

sindicato. A cambio, UGT ha firmado todo lo que la dirección le ha puesto delante, aunque ello conllevará empeorar las condiciones laborales. Ha apoyado la eliminación de 20 minutos de descanso impuesto por Salud Laboral por las duras condiciones laborales en la planta. Y ha callado ante los despidos injustos de varios compañeros.

**En 2019 Icer Rail obtuvo 9 millones de beneficio** y repartió a los accionistas 11 millones de euros (con una subvención de 800.000 euros de dinero público en los últimos años). El trabajo en la empresa es manual, con mucho peso, repetitivo, con productos químicos y excesiva carga de trabajo. Todo esto hace que el riesgo de sufrir lesiones musculoesqueléticas sea altísimo y las condiciones laborales muy duras. En la negociación del convenio en 2018 los entonces representantes de UGT rompieron las negociaciones ante las excesivas presiones de la dirección. En octubre de ese año, sin embargo, todo cambió. Una reunión entre la dirección de UGT y responsables de la empresa hizo que el sindicato desautorizase a sus delegados, iniciase trámite de expulsión para acabar firmando un acuerdo con la dirección, para la dirección y contra la plantilla.

En diciembre de 2018 hubo elecciones sindicales y la empresa

hizo todo lo que estuvo en su mano para beneficiar la candidatura de UGT. El resultado fue muy ajustado, 5 representantes para UGT y 4 para ELA. En enero de 2019, la empresa impuso una modificación para aplicar un quinto turno (que supone trabajar en sábados y domingos) que no fue apoyada por ningún miembro del comité, y comenzaron las protestas en Producción. Lamentablemente, UGT volvió a salir al rescate de la dirección para desactivar las protestas y acabó firmando el nuevo convenio. De nuevo un acuerdo al servicio de los intereses de la empresa.

Sin embargo, ese acuerdo no sirvió para contrarrestar el malestar de la plantilla, que ha secundado una huelga durante más de 18 meses, una pelea sostenida en el tiempo para lo que ha sido imprescindible la caja de resistencia de ELA. Por desgracia, la respuesta de Icer ha sido, además de negarse a negociar, amedrentar a las huelguistas imponiendo más de 12 sanciones y 3 despidos. Un ejercicio de vulneración sindical que ya hemos judicializado, ya que prácticamente todas las personas sancionadas o despedidas son afiliadas a ELA.

La **falta de implicación por parte del Gobierno de Navarra** ha sido lamentable. El Departamento de Trabajo, con el consejero Manu Ayerdi a la cabeza, conoce lo que ha sucedido y su respuesta ante nuestras peticiones de reunión ha sido reunirse con la empresa y con UGT, retrasando nuestra reunión cuatro meses. El mismo caso que nos ha hecho Inspección de Trabajo. Todas las denuncias realizadas por ELA han tenido un retraso inexplicable, llegando a tener 3 inspectores diferentes con el mismo resultado. El Departamento de Trabajo y la Inspección de Trabajo son dos entes públicos y supuestamente imparciales, pero en este caso se han posicionado claramente con la dirección.

Muchos de los temas pendientes en Icer Rail se decidirán judicialmente. Y después de esos juicios, entonces sí, Ayerdi nos tendrá que oír. ■



# PILOTA BORROKAN

**A**skotan ikusi ditugu frontoian edo telebistan. Gazteak dira, goi mailako kirolariak. Eta langileak. Nazkatuta dauden langileak. Baiko Kirola enpresako pilotariez mintzo gara. Euren egoera asko aldatzen ari da egunetik egunera. Horregatik, antolatzea erabaki dute. Irailaren 16an Tolosako Beotibar pilotalekuan eman zuten euren egoeraren berri lehenengoz jendaurrean. Euren eskaerei jaramonik egiten ez zietela ikusirik, urrats berriak iragarri dituzte. Horregatik, urrian hamabi greba egun egingo dituzte.

Ez da erabaki erraza izan. Euren kirola asko maite dute. Pilotatik bizitzeko aukera izatea sekulakoa dela onartzen dute, eta jakitun dira askok nahiko luketela euren tokia hartzea. Baina horrek ez du esan nahi maite duten hori egitearen truke edozer irensteko prest daudenik. Ez daude prest mehatxuak jasateko, kaleratzeak onartzeko, enpresaren informazio falta eta gardentasun ekonomiko falta salatzen dute... Euren lan eta bizi baldintzak arautuko dituen hitzarmen bat nahi dute, edozein langilek bezala.

Akordiorako borondate argia erakutsi dute makina bat aldiz. Elkarrizketa zintzo eta gardena nahi dute, mehatxurik gabe. Greba deialdiaren aurkezpenean argi utzi zuten. "Edozein enpresatan gertatzen den bezala, gure betebeharrak gogoz eta modu onean betetzeko prest gauden langileak gara; baina langileak bezala, eskubideak ere badauzkagu, eta orain eskubide horiek arrisku larrian ikusten ditugu".

Pilota borrokan dago. ■



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129